

# ENTSALADA MANEATUAK

Mateo Flecha “El Viejo”ren Entsaladez hornitutako Kontzertu Didaktikoa  
LEHEN HEZKUNTZARAKO GIDA DIKTIKOA  
Ganbera abesbatza, organoa eta perkusioa

*Gida didaktikoa: Uxue Uriz Sucunza*



Sarrera

Sukaldaria: Mateo Flecha “El Viejo” musikagilea

Egosteko denbora: Berpizkundea

Jaki nagusia: entsaladak

Eta hau ... nola jaten da? Kantu kantari!

Iruñeko Ganbera Abesbatzaren “Nova Lux Ensemble”k zerbitzatua

Organo positiboak eta perkusioak lagundurik

Girotze lanak: Giuseppe Arcimboldo

*Ariketa errezetategia*

Lehenengo platera: ahotsa

Bigarraen platera: testuak

Lagungarritako: irudiak

Azkenburu dastaketa: askotariko ariketak

Bibliografia

Diskografia

Eranskinak

## Sarrera

“Entsalada maneatuak” kontzertu didaktikoa:

Kontzertua? Abentura liburua? Sukaldaritza tailerra? Margolaritza estudioa? Zer ote?

Denetik piska bat.

Orian dela gutxiko elkarrizketa batean, Jordi Savallek honela zioen: Aintzinako musika ez da berez den zerbait, musika ekitaldi garaikidea baita. Izan ere, kantatzen edo ematen dugunean soilik izaten baita. Eta une horretan jada ez da aintzinakoa”

Baieztapen xorrotx xamarra badirudi ere, ederki argitzen du kontzertu honen oinarritzko xedea: XV. mendeko musika bokala jendari hurbiltzea, ereduako musikagile baten bidez, lan hautatu batzuen bidez eta musika mota honetan espezialdutako abesbatza baten eskutik.

Gida honek lagungarri izan nahi du hurbiltze horretan.

## Sukaldaria:

### Mateo Flecha “El Viejo” musikagilea

Mateo Flecha Pradesen (Tarragonan) jaio zen 1481ean.

Bartzelonan musika ikasi ondoren Lleidako katedralean, hasieran abeslari eta ondoren kapera-maisu aritu zen. Calabriako Dukearen zerbitzuan ere ibili zen, Valentzian, eta zenbait urtez Gaztelako Infanteen, alegia, Carlos V.aren semeen, musika maisu izan zen. Gorte hartan eginiko egonaldian lan ugari konposatu zituen, bai erlijiosoak, bai profanoak, eta *Entsalada* izenaz ezagutzera ematen hasi zen konposizio haiek, halako ospea eta gortearen babesa eman zioten konposizio haiek, hain zuzen. Izan ere, gortekoak entretenitzeko sortuak baitziren, eta arrakasta handia lortu baitzuten jauregiko jaietan.

Azken urteetan Zister Ordenean sartu zen eta Pobleteko Monasterioan eman zituen azken urteak, 1553an han hil zen arte.

Zergatik “Zaharra”?

“Gaztea”goitizena eman zioten Mateo Flecha izeneko ilobarengandik bereizteko, besterik gabe. Mateo Flecha “Gaztea”k argitaratu zituen Pragan 1581ean osabak konposaturik utzitako *Entsaladak*

## Egosteko denbora: Berpizkundera

“Berpizkunde” hitzak berriz piztea esan nahi du eta zentzu hori eman nahi zaio XIV mendea aldera, Italian, aintzinako grekolatinoen espirituaren berreskurapena ezaugarri nagusi izan zuen garai historikoari deitzeko erabiltzen denean.

Berpizkunde izenaz ezaguturiko garaiak 1400 eta 1600 bitarteko urteak hartzen ditu, alde-aldera.


Europako historiako garai haren ezaugarri nagusia iraganeko Grezia eta Erroma klasikoenganako interes berezia izan zen, batez ere garai haietako artearenganako interesa.

Berpizkundera Italian sortu zen XIV mendean eta Europan barna hedatu zen XV eta XVI. mendeetan. Garai hartan, Erdi Aroko gizarte feudal zatikatu, ekonomikoki nekazaritzan oinarritua eta intelektualki Elizaren menpe zegoena, erakunde politiko zentralizatuak zuzenduriko gizarte bilakatu zen pixkanaka, eta merkataritza ekonomia hiritarra eta hezkuntzaren, arteen eta musikaren mezenasgoa garatu zituen.

Kultura klasiko grekoerromatarrari berriz ere balioa ematen saiatu ziren jakintsu haiei humanista izena eman zitzaientzen, eta haien eragina Italiatik Europa guztira hedatu zen, unibertsitatei, liburuei eta beren artelanean lorturiko ospari esker.

Berpizkundeko humanismo hark gizakia hartu zuen unibertsoaren erdigunetzat.

Zientzia eta artea senidetu egin ziren: irudigileek giza gorputza ikasi zuten, margolariak espazio arkitektonikoak jabetu ziren, musikariak akustikaz, e.a.



Eta zeuon buruari galdetuko diozue ... Eta zein artista ditugu horiek, bada? Hara, seirehun urte baino gehiagoz atzera eginda bagabiltza ere, ziur denok entzun duzuela zerbait Leonardo da Vinci, Rafael edo Miquel Angeloren inguruan; Giotto, Donatello, Copernico ere... entzun bide dituzue. Eta musikarien artean hor ditugu Dufay, Ockenghem, Josquin des Prez, Palestrina, Monteverdi ... Musikari espainiar garrantzitsuenen artean, berriz, Juan de la Encina, Francisco Guerrero edo Tomás Luis de Victoria aipatu behar ditugu.

Espainian Berpizkundearen hasierak Errege-erregina Katolikoaren erregealdiarekin egin zuen bat. Erregealdi hartan batu ziren Gaztela eta Aragoako erresumak (1469). Bestalde, garai hartan eta haien kaperaren inguruan izandako hainbat gertaera musikal Urrezko Mendea deiturikoaren atari izan ziren, Espainian emankortasun musikal handieneko garaia izandakoaren hasiera, alegia.

Gortean musikari gehienak espainiarrak ziren, herriak sortutako egitura errazeko musika ez erlijioso bultzatu zuten, erromantzeetako poesia eta *villancico* izeneko kantuak doinu tradizionalerik abesten zituzten.

Berpizkundean Espainiako jardun musikalak lotura handia izan zuen eliz kaperekin –gortearenekin bereziki-, erakunde haietan musikaren papera ordezkazina baitzen.

Kaperetan eta XV eta XVI mendeetako goi mailako gizarteko jauretxeetako aretoetan eskaintzen zen erreperitorioa “Cancionero” izeneko hainbat bildumatan dago gordeta: “Cancionero de la Colombina”, Hernando de Colon (nabigatzailearen anaia) zela eta izen hori hartu zuena, haren

liburutegian baitzegoen, “Cancionero de Palacio”, Errege-erregina Katolikoek gortean entzuten zen musikaren berri ematen duen antologia, “Cancionero de Upsala”, Carlos I.aren garaiko “villancico” bilduma, “Cancionero de Medinaceli”, abesti gehienetan profanoen bilduma.

Berpizkunde garaian jori-aldi handia izan zuten konposiziorako teknikak. Garai hartako estilorik adierazgarrienetakoa imitaziozko polifonia dugu. Honetan, ahots guztiak abiadura berean aritzen dira eta imitazio puntuak konbinatuz gai eta motiboen garapena elkarbanatzen dute. Kontzertu honetan entzuten ditugun Mateo Flecharen entsaladetan, adibide ugari aurkituko dugu.

## Jaki nagusia: Entsaladak.



Zer da entsalada?

Beharrezkoa ez badirudi ere, jo dezagun Espainiako Errege Akademiaren hiztegiara eta, lehenengo esanahian, honako hau aurkituko dugu: “Barazki bakarra edo barazki anitz, zatitan ebakiak eta gatz, olio, ozpin eta bestelakoez maneatuak”. Beraz, entsalada zer den galdetuta edonork erantzuten lukeena: uhaza, tomatea, piperra, tipula... gatza, olio eta ozpina.

Baina termino bera Musikako Oxford Hiztegian begiratu gero, honako definizio hau aurkituko dugu: “Poesia konposizioa, beste lan ezagun batzuetako bertso zatikiak tarteka dituenak. Izen bera hartzen dute jatorri askotariko hizkuntza eta esaldi musikalak eta estilo ezberdinak nahasiz osaturiko hainbat musika lan espainiarrek”.



Osagai ugari, elementu zenbait, estilo anitz, hizkuntza asko, gozo maneatura, musika oneko anoa bikaina eta orekatua osatuko dutenak.

Sebastián de Covarrubiasen honela idatzi zuen 1611n: “entsaladari belar ezberdin asko, haragi gaziak, arrainkiak, azeitunak (...) gehitzen zaizkionez, entsalada deitu zioten neurri ezberdineko kantez osaturiko genero hari (...) eta antzinako egileenak aunitz ditugu, eta bikainak gainera, hala nola, El Molino, La Bomba, El Fuego, La Justa, ...”

Metrika ezberdinen erabilpenak, egitura polifoniko eta homofonikoen tartekatzeak, onomatopeiek, hizkuntza ugari erabiltzeak, (gaztelera, katalana, italiarra, frantsesa edo latina) eta, batez ere, musika lan berean forma profanoak eta erlijiosoak bata bestearen gainean jartzeak defintzen dute entsaladaren egituraketa berezia.

Entsaladarik antzinakoenak Cancionero de Palacio delakoan daude gorderik, eta zaharrena, seguraski, Garcimuñózi egotzitako “Una montaña pasando” izan da.


Mateo Flecha “El Viejo” izan zen, ordea, entsalada konposatzailearik ezagunena, eta berak eman zion genero honi bikaintasunik gorena. Badakigu hamaika entsalada gutxienez idatzi zituela, hamar besterik kontserbatu ez bada ere, haietako sei oso osorik.

Kontzertuan entzungai izanen ditugu La Negrina, La Guerra, La Justa, La Bomba eta El Fuego.

1. Eranskinean aurkituko ditugu entsalada hauen testuak.

## Eta hau... nola jaten da? Kantu kantari!

Denok aditu izan dugu, noiz edo noiz, jan bitartean kantari ari denak zentzumenen bat eskas duela... Eta hala da. Jan bitartean ez dugu kantatu behar, baina bizitzako gainerako egoera guztietan, nola edo hala, hortxe izanen dugu kantua, seguraski: amak haurrari besoetan kulunka haur kanta abestea baino gauza gozoagorik ez da, haur jolasetako kanta ere hor ditugu, garbiketan ari denaren abesti ahapekatzea, nahita edo nahi gabe, autobusean gabiltzala entzuten ditugun kanta, eta une, estilo eta abeslari zerrenda amaiezina.



Baina esperientziarik emankorrenetako edonorentzat - haur, gazte, heldu edo zahar - abesbatza kantatzea da.

Hezkuntza musikalean adituak diren askok pertsonaren musika formakuntza integralerako ekarpen nagusietakotzat hartzen du abesbatza-kantua.

Kantatzeak, ahotsa eta gorputza komunikazio eta adierazpen bidez erabiliz, norberaren gorputza musika nola bihurtzen den sentitzeak, izugarri osatzen du haurra, eta musikaren mundura hurbiltze horretan eragin zuzena du.

Abesbatza kantatzeak bi eragin ditu hezkuntza prozesuan, alde batetik kolektibotasun kutsua, eta bestetik kantari bakoitzaren ekarpenaren erlatibotasuna azken emaitzari begira.

Aldi berean, naturaltasunak, malgutasunak eta kanturako intuizioaren lanketak eragin garrantzitsua dute haurren musikaltasunean.

Geneviève Marchandek “Ahotsa, gorputzaren musika” artikuluan (Chant Choral magazine 67zkoa; 2000) honako hau idatzi zuen:

*“Soinu aldetik ere zerbait izan nahi izateak berak sortzen du ahotsa, berak garatu eta joritasunez osatzen du. Nahi honek berak sortu eta banatzen du soinuaren ekoizpenari loturiko ekintza guztiak orekatu eta dosifikatzeko behar den gorputz energia.*

*Egunen batean abesbatzakide edo talde bokal bateko kide izatea erabakitzea ez da inoiz ekintza txepel eta eragingabetzat jo behar. Bat abesbatza bateko kide egiten da adiskide bati edo ezkonlagunari laguntzeagatik, edo bere erabakiz, abestea gogoko dugula esaten baitugu. Baina, zergatik dugu horren gogoko?*

*(...) Bai ahots bakarrean, bai taldean eginiko musikak betetasun izugarria eskaintzen digu. Piskanaka, piskanaka, abestu beharra gure izate guztiaz nagusituz doa.*

*(...) Ongi ulertuta eta ongi erabilia, gure ahotsa, inoiz uko ezin egin diogun zerbait izatera helduko da: pozak eta zirrarak sorrarazten duten soinu bibrazioa eta gorputz-arimen bategite fisiko, psikologiko eta musikalak elkartzean sorturiko gozamen iturria.(...)*

Kontzertu honetan egungo panorama musikaleko ganbera abesbatzarik hoberenetakoa entzuteko aukera izanen duzue.

## Iruñeko Ganbera Abesbatzaren Nova Lux Ensemblek zerbitzarurik



Iruñeko Ganbera Abesbatza Elkartea 1948an sortu zuen Luis Morondo Urra maisuak eta XV, XVI.eta XVII mendeetako musika ikertu eta lantzeko asmoz jaio zen. Urteak aurrera egin ahala ordea, musika bokaleko arlo guztietara zabaldu du bere erreperatorioa.

Ganbera Abesbatza biziki nabarmendu da musika esparru entzutetsuenetan, eta munduko agertoki eta aretorik ospetsuenetan aritu da.

2006an Iruñeko Ganbera Abesbatzak antzinako musikan espezializatutako talde bokal profesional egonkorra sortu zuen.

Informazio gehiago nahi izanez gero honako web orri honetara jo dezakezu:

[www.coraldecamaradepamplona.com](http://www.coraldecamaradepamplona.com)

## Organo positiboak eta perkusioak lagundurik

Daniel Oyarzábalek organo positiboan eta David Mayoralek perkusioan lagunduko diete, batzuetan, eta beste batzuetan, sarrera emanen diete Nova Lux Ensembleko kideei.

W. A. Mozarten ustez organoa da musika tresnen errege, eta eskainten dituen aukera eta soinu errekurtsioak direla eta, ia ia denak batzen dituela esan dezakegu.

Batzuen ustez organoak Txinan du jatorria, eta beste batzuek, berriz, greziarrek asmatutako *hydraulosean* kokatzen dute, hain zuzen ere Bizantzioko Teodosio Handiari (393) egindako obeliskoan ageri den hartan.

Erromatarrek izan zuten haren berri eta Eliza Katolikoak elizkizunetan lagun egiteko VII mendean onartu zuen.

Organoa teklatu instrumentua da eta haize instrumentuen sailekoa da. Haizea, elektrikoki edo hauspo batez eraginda, zenbait hoditan, albate moduko zulo batzuetan barna, sartzean egiten du soinua. Teklatuak palanka batzuetan jo, eta palanka hauek albate gisako horiek irekitzen dituzte, haizea sar dadin. Soinua neurri ezberdinetako eta eskala jakin baten baitan afinatutako hodi batzuetan egiten du aireak.

“Positiboa” deitzen zaio organo eramangarri mota bati. Organo txikia da baina tinbre eta sonoritatei dagokienez bikain osatua.

Organo positiboa, organo eramangarri txikiak eta organo handia elkarrekin bizi dira eta aldi berean ekoizten dira XII mendeaz geroztik, eta orduz geroz bilakatuz joan da, egungo organura heldu arte. Polifoniaren babesean hedatu zen eta honekin batera garatu, katedraletako, monasterioetako, elizetako eta jauregietako abesbatzen lagun bereziezin eta nahitaezkoa zelarik.



Davidek danbor militar handi bat joko du kontzertuan, La Guerran azaltzen den gatazka nagusia iragartzeko. Beste perkusio tresna batzuk ere joko ditu.

Mateo Flecharen entsaladak eta Berpizkundeko beste hainbat polifonia lan biltzen dituen diskografian garaiko hainbat tresnaren laguntza dute konposizio hauek, hala nola, lauta, bihuela, moko-xirula, xaramela, e.a.

## **Girotze lanak: Giuseppe Arcimboldo**

Kontzertuan Giuseppe Arcimboldo margolari italiarraren erretratuak proiektatuko dituzte.

Giuseppe Arcimboldo

Milango “Magistrato della Sainità”ko heriotza erregistroan ageri da Giusepope Arcimboldo han hil zela 1593ko uztailaren 11an, “66 urte inguru zituela, giltzurrunetako harriek eta gernu debekuak jota, izurri susmorik gabe”. Seguraski Milanen bertan jaio zen 1527an, Carlos V.aren mertzenarioek Erroma hartu eta arpilatu zuten urte berean, hain zuzen.

Garaiko agirietan begiratzea aski da ikusteko Arcimboldoren margo lanek nolako harridura sortu zuten agintari eta garaikideengan. Izan ere, haren koadroetan nabari den ikuspegi artistiko bereziak eman baitzion margolari ospea.

“Kapritxo alegorikoak” ziren haren berezitasuna eta margo hauetan naturako izaki hilek, lore multzoek, frutek, itsaskiek edo arrainek erretratu perfektuak osatzen dituzte.

Zergatik dira paregabeak margolan hauek? Arcimboldok mila lozez osaturiko buru bat, soslaiz, margotu zuen : “Udaberria”; mota guztietako frutez eginiko burua, “Uda”; itsas espezie guztiak elkartu zituen kaos izugarri batean eta margolanari “Ura” izena eman zion; berrogei animalia baino gehiagok osaturiko buruak “Lurra” du izena. Liburuz osaturiko gorputz erdiko erretrato bat liburuzain baten irudia da. Eta horrela gainerakoak, margolaneko forma bakoitza egoki eginda, kolorea sentiberatasunez erabilia eta marrak argi askoak darabiltzala.



Bere garaian Arcimboldok ospe handia lortu zuen. Hil ondoren ordea, berehala ahaztu zuten. XVII eta XVIII mendeetan ia ia ez zuten aipatu ere egin. 1885ean argitaratu zuten margolariari buruzko entsegu berria. Carlo Casati doktoreak “Giuseppe Arcimboldo, pittore milanese” lanean, erretratogiletzat jo zuen batez ere.

Geroago artistek beraiek deskubritu zuten. Surrealistek batik bat, aintzindaritzat hartu zuten.

# Ariketa errezetategia

Dagoeneko ezaguna dugu Mateo Flecha, bere musika ondu zuen garaia ere bai, musika arloan “entsalada” hitza zeri dagokion, norik abestuko duen kontzertuan eta zer osagai erabili zituen Arcimboldok bere erretrato ospetsuak margotzeko ere bai.

Informazio honek –bere horretan- hainbat pista eskaintzen dizkigu kontzertuaren edukietara hurbiltzeko, baina abesbatza-musikara, Bepizkundera, Mateo Flecharen entsaladetara hurbiltze hori eraginkorragoa eta emankorragoa izan dadin planteatu ditugu ondorengo jarduerak. Batzuk oso zehatzak dira eta beste batzuk, berriz, jarduera zabalak, ikasle taldearen ezaugarriak eta aukerak kontuan izanik irakasleak bideratu eta egituratuko dituen iradokizunak.

Ariketak lau taldetan sailkatu ditugu:

Lehenengo platera: ahotsa

Bigarren platera: testuak

Lagungarritako: irudiak

Azkenburuko dastatzea: askotariko ariketak.

Kantua, abestia, heziketa bokala, abesbatza mundua, hain arlo zabalak direnez eta hezkuntza musikaleko hainbeste alor hartzen dituztenez, jarduera bereziki musikalak egin ditzakegu eta baita diziplinarteko ikuspegitik jorratutako jarduerak ere.

Ezagutzen ditugun jateko entsaladak eta entzuteko diren entsaladak elkarrekin lotzeko keinu gisa, ariketei sukaldeko errezeten izenak eman dizkiegu.






## Lehenengo platera: ahotsa

Sorta honetako ariketek ahotsaren aukerak ezagutzen eta gozaten lagunduko digute.

- *Aperitiboa*

*Abestean gorputz guztia bihurtzen dugu musika tresna. Hasi burutik eta oinetaraino. Eta ongi abesteko, lan honetan lagunduko diguten giharrak prestatu egin behar ditugu; ahotsa entrenatu behar dugu, baina gorputz guztiak ere prest egon behar du aldez aurretik.*

*Goizean ohetik jaikitzean bezala has gaitezke, nagiak ateraz eta hainbat ahozabalka eginez (behin eta berriz, ahozabalka egiteko bezala ahoa irekiz gero benetako ahozabalkak eginez bukatuko duzu...). Ondoren masaje eder bat, sorbaldetan, besoetan, bularrean txalotxoak emanez, lepoa, masailak, sudurra, begien ingurua, kopeta, belarriak... igurtziz. Bizkarrera heltzen ez garenez binaka jar gaitezke edo ilara bat egin edo biribilean jarri eta bakoitzak aurrean duenari bizkarra ongi igurtzi... Zeinen gozo!*



*Eta soinua ahots harien dardarak eta hauen oihartzunak eragiten badute ere, kalitatezkoa izan dadin, abesten ikasi baino lehenago arnasa hartzen ikasi behar dugu.*

*Abestean erabiltzen dugun arnaskerari diafragmatikoa deitzen diogu, izan ere, biriken azpialde inguruan dugun diafragma izeneko giharraren ardua baita, lehenengo, birikak osotara airez betetzen uztea eta, bigarrenik, aire adarrari etenik gabe eta era erregularrean bultzatzea ahots harien dardara gerta dadin.*

*Aperitibo gisa bi arnas-jolas:*

### *Kandela*

Osagaiak:

Kandela  
Hura pizteko txiskeroa

Egiteko modua:

Arnasketa diafragmatikoan hainbat aldiz aritu ondoren, kandela piztu eta mahai gainean jarriko dugu.

Ondoren haurrak kandelari haize eman behar dio su lama etenik gabe mugi dadin baina itzali gabe. Horretarako saiatu eta kalkulatu beharko du zer distantziatik egin behar duen putz, jaurti beharreko aire kopurua eta baita airearen abiadura eta presioa ere.

## Papera horman

Osagaiak:

Zeta-paper zatiki batzuk  
Freskagarrietarako lastotxoak

Egiteko modua:

Lau edo bost hurrez osaturiko taldea horma leun baten aurrean jarriko dugu, eskuan zeta-paper zati bat aurpegiaren parean dutela –barajako karta baten tamainakoa-. Haur bakoitzak lastotxo bat izanen du haize emateko eta, irakasleak seinalea ematen duenean, papera eskutik askatu eta, lastotxoan barnako haize emariaren bitartez, papera hormaren kontra mantentzen saiatuko dira. Papera hormaren kontra denbora luzean mantentzen duen haurra izanen da irabazle.

Jolasaren zailtasuna areagotzeko, lastotxorik gabe egin dezakegu.

## • Askotariko tesiturak


Abesten hasterakoan argitu beharreko lehenengo gauzetako bat zera da: zer ahots mota dugun.

*Bi sailkapen mota egin ditzakegu: tesiturari dagokiona eta tinbreari dagokiona.*

*Ariketa honetan tesiturazko sailkapenari jarriko diogu arreta. Sailkapen hau tonuen hedaduran dago oinarrিতua, abeslaria eroso aritzen den hedaduran; pertsona batek emiti dezakeen nota multzoa da tonu-hedadura hori.*

*2. Eranskinean aurkituko duzu ahotsak sailkatzeko taula bat eta, gainera, hurrengo web orrialdea begira dezakezu::*

*[www.f-mercury.com.ar/clasificacion.htm](http://www.f-mercury.com.ar/clasificacion.htm) Hemen ahotsen sailkapena agertzen da, baita kontratenore eta “castrati”ei buruzko informazioa ere.*



Osagaiak:

Ikasle talde baten ahotsak  
Pianoa edo teklatura  
Paper lerroduna

Egiteko modua:

Haurrak hirunakako taldetan jarrita, eta teklaturako sol 3 notatik abiatuta, goranzko eskala batean eta beheranzko beste batean lagunduko diegu, bakoitzak idatziz adieraz dezan zein diren arazorik gabe emititzen dituen notarik altuena eta baxuena.

Hau egindakoa tesitura antzekoena dutenekin elkartu beharko dute.

- *Egiturak kolore askotariko saltsan*

*Tinbrea soinu ezberdinak bereiztea ahalbidetzen digun tasuna dela esan dezakegu. Giza ahotsaren kasuan tinbrea honako faktore hauen baitan dago, besteak beste: ahots hari motaren, dardar egiteko moduaren, oihartzun kuten eta ahotsaren emisioan parte hartzen duten organoen ezaugarri fisikoen baitan, alegia.*

*Gutako bakoitzak ahots ezberdina dugu, eta ahotsaren bitartez adierazten ditugu geure ezaugarriak, bai egiturazkoak, bai anatomikoak eta baita animikoak ere.*

Osagaiak:

Ikasle taldea

Begiak estaltzeko zapia

Egiteko modua:

Haur bati zapiaz begiak estaliko dizkiogu eta gainerakoak gelan barna sakabanatuko ditugu. Irakasleak aginduko dio haur bati hitzen bat edo esaldiren bat esateko, hots arraroren bat egiteko, zer edo zer xuxurlatzeko edo edonolako bokalizazioa egiteko. Begiak estaliak dituen haurrak asmatu beharko du nork egin duen.

Jolas honetan aldaketa bat izan daiteke, denon artean ahozko adierazpen bat aukeratzea. Haur guztiak biribilean eserita begiak itxiko dituzte eta irakasleak bat ukituko du, adierazpen hori egin dezan. Gainerako taldekideek asmatu beharko dute zeinek egin duen.

- *Bokal “fondue”a*

*Taldean abestu behar dugunean garrantzitsua da batzuen eta besteen ahotsak biltzea, elkartzea, bateratzea, taldeak bere soinu kalitatea izan dezan eta kalitate hori bateratua izan dadin.*

*Abesbatzako kide bakoitzaren bakarkako ekarpenak soinu kalitate hori ahotsen batuketa baino zerbait gehiago izan dadin lortuko du.*

Osagaiak

Ikasle taldea

Egiteko modua:

Haurrak biribilean eseriko dira, batzuk besteengandik hurbil samar.

Batek *a* letraren bokalizazio eroso eta naturala egingen du. Eskuinaldeko lagunak soinu horretara hurbiltzen saiatu behar du, haren ezaugarriak eta parametroak kontuan hartuz eta aldi berean emititu, harekin bat eginez. Hirugarren abeslaria sartzen denean lehenengoa isildu egingen da. Honela bizpahiru ikasle batera ariko dira abesten eta errondak etengabe segituko du.

Hasierako bokalizazioak letra, indar, kolore, e.a. ezberdina izan dezake.

- *Oihartzun ogitartekoak*

*Kontzertuan “La Bomba” izeneko entsalada entzunen dugu eta, bertan, Mateo Flechak oihartzuna erabili zuen errekurso musikal gisa.*

*Oihartzuna soinuaren islapenarekin zerikusia duen fenomeno akustikoa da.*

*Jatorrizko seinale akustikoa agortuagatik ere, soinua, horma edo bestelako traba baten kontra jotzean, soinu uhin islatu gisa itzuli egiten da.*

*Fenomeno hau esperimenta dezakegu areto huts handi batean, eliza batean, pilotaleku batean, mendian, leize zulo batean, e. a.*



*Orlando di Lasso, musikagile franko-flandestarraren “L’eco” lana entzuteko gonbitea luzatu nahi dizuet. Orlando di Lasso Mateo Flecharen garaikidea izan zen, eta Europako XVI mendeko musikaririk eraginkorrenetakoa. Musika lan honen grabazio bat baino gehiago bada, baina ziur berezia eta zirrargarria suertatuko zaizuela iTunesen aurkituko duzuen metal talderako bertsioa, honako erreferentzia hau duena: Álbum “The glory of Gabrieli” Empire Brass. Telarc International Corp. (2002).*

Osagaiak:

Areto handi bat  
Ikasle taldea

Egiteko modua:

Haurrak bi taldetan banatuko ditugu, eta bi taldeak elkarrengandik ahalik eta urrunen jarriko dira.

1. taldeak hitz eta esaldi motz zerrenda bat egingen du 2 taldeak jakinen ez duena eta alderantziz.

Jolasa honetan datza: talde emititzaileak proposatutakoa errepikatu behar da, baina tarte jakin batez, segundo batez esaterako, horrela batak dioena besteak dioenarekin nahasiz, eta aldi berean, abiadura, intentsitatea e.a. kopiatzen saiatu. Oso jolas ona da arreta, intuizioa, dedukzioa eta aurrea hartzea garatzeko.

Orlando Di Lassoren partitura konplexuegia da eskola-talde batean abesteko, izan ere, beste zenbait gauzaren artean, ahots mistoko abesbatzarako baita, eta honetan nolabaiteko esperientzia eskatzen baitu.

El eco  
doble coro a 4. v. m. LASSO. O.

261

The image shows a musical score for a double choir (doble coro) setting of 'El eco' by Orlando di Lasso. The score is for four voices in each choir: Soprano, Contralto, Tenor, and Bajo. The lyrics are 'O la, o che bon ec-cho'. The score includes dynamic markings such as *f* (forte) and *pp* (pianissimo). The key signature is one sharp (F#) and the time signature is common time (C). The score is numbered 261 and includes the composer's name 'LASSO. O.' and the title 'El eco doble coro a 4. v. m.'.

3. Eranskinean aurkituko duzuen Javier Bustoren “Atxa mitxa” musika lana ordea aise abestu ahal izanen duzue, eta emaitza ona lortu, gainera. Flecharen Entsaladak bezala, onomatopeiak, metrika eta konpas aldaketak eta oihartzun-efektuak dituen hiru ahots berdinetako musika-lana da.

- *San Sabeya gugurumbé, berezitasun kreolea*

“La Negrina”ren testuan Flechak hainbat hizkuntza erabili zituen, besteak beste, pasarte batean dialekto kreole hispano portuges bat. Pasarte erraza da, homofonikoa eta erritmo eskema argia duena oso.

4. Eranskinean klasean abestu ahal izateko moduko pasarte honen adaptazio bat duzue.

- *Kantu nahaskia*

*Gidaren hasieran esan dudan moduan, entsaladen ezaugarrietako bat nahasketa da, estilo, forma eta neurrien nahasketa, etab.*

*Kantu nahaski honetan zenbait kanturekin aldi berean ariko gara jostaketan.*

Osagaiak:

Ikasle taldea

Zenbait kanturen izenburuak idatzita dituzten fitxak

Txilibitu bat.

Egiteko modua:

Taldeko umeak adina fitxa prestatuko ditugu..

Guztiok ezagutzen ditugun hiru kantu aukeratuko ditugu, kantu bakoitzak fitxa kopuru bera izan dezan. Ondoren, fitxak tolestu eta ontzi batean jarriko ditugu, jokalaria bakoitzak bana har dezan. Txilibitua jotzean, umeak ikasgelan barna ibiltzen hasiko dira, euren fitxan ageri den kantua kantatzen duten bitartean. Kantuan dabiltzalarik, euren ikaskideei aditu beharko diete, euren kantatzen duten kantu bera zeinek kantatzen duen antzemateko. Hori aurkiturik, eskutik heldu eta berriz ere kantuan eta ibilian segiko dute. Hiru taldeak osaturik amaituko da jostaketa.

- *Guirlatxeak eta mazapanak*

*Kontzertuaren musika programa osatzen duten entsaladetan etengabe aipatzen dira Eguberriak. Esate baterako, “El Fuego” lanaren azken zatietako batek honela dio:*

De la Virgen sin mancilla  
ha manado el agua pura.”  
Y es que á hecho criatura  
al Hijo de Dios eterno  
para que diesse gobierno  
al mundo que se perdió  
y una Virgen lo parió,  
según havemos sabido,  
por reparar lo perdido  
de nuestros padres primeros.  
¡Alegría, cavalleros!,  
que nos vino en este día  
que parió Santa María  
al pastor de los corderos.



*Guretzat guztiontzat, gaztelaniaz ari garela, kantuen eta Eguberrien arteko harremana “villancico” direlakoetan gauzatzen da. Eguberri-kantua, egun, bere hitzetan Eguberrien aipamena egiten duen kantua da. Guztiok ezagutzen dituzue eguberri-kantu anitz, eta bilduma ere egin zenezakete. Baina sortzez – XIII mendean – gaztelaniaz “villancico” deitzen diren horiek, - “villano” edo nekazariaren txikigarria – herri xehearen adierazpen liriko soila zen. Izen hori hartu zuten lehenbiziko kantuak benetan Erdi Aroko koruen dantzak ziren.*

*Espainian” villancico” hitza ez da Eguberrietako ospakizunarekin bakarrik lotu behar den kantu moldea, musika konposizio mota baten izena ere badelako. XV mendeko” villancico” espainola honela osatzen da, alegia, hiru bertsoetako estribiloa, lau bertsoetako koplak, loturazko bertso bat edo bi, eta estribiloaren azken bertsoen errepikapena, azken hauek “vuelta” izena hartzen dutela. Egitura formal honako hau litzateke: ABBA*

5 Eranskinean duzue XVI mendeko “Una hermosa doncella” villancico anonimoaren partitura. Ez da oso partitura erraza, baina aztertzea eta, zergatik ez, kantatzea ere oso interesgarriak izan daitezke.

Iruñeko Santo Tomas ahots zurien Abesbatzak 1996an egin zuen grabaketa batean (ARION) kantu hau sartu zuten.

## **Bigarren platera: testuak**

Kantuan ari garelarik, komunikatu, transmititu, adierazi nahi izaten dugu... eta idatziz dagoena adierazteko lagungarria izaten da musika.

Ondoko ariketa hauekin Mateo Flecharen entsaladen testuetako zenbait eduki landuko ditugu, bai eta erabiltzen dituzten baliabide literarioetako batzuk ere.

- *Onomatopeiak pil-pilean*

*“La Justa” lanean Mateo Flechak hainbat onomatopeia erabili zituen musika instrumentu batzuen hotsa aipatzeko. Onomatopeia zera da, silaba, hitz edo hitz talde bat erabiltzea, haiek ahoskatuta adierazi nahi dugun hotsaren antzeko bat lortzen dela. Onomatopeien adibide ohikoak dira “bum”, “tin”, “pan”, “klik” edo “krak”. [www.elhuevodechocolate.com](http://www.elhuevodechocolate.com) orrian aurkituko dituzu Espainiako Errege Akademiak onartutako onomatopeien taula.*

*Euskaraz, berriz, izugarri oparoa da onomatopeien erabilera, horra hor “danbatekoa”, “zirt edo zart” egitea, “dinbi-danba”, “kulunka”, “irri-karkara”... Hizkuntzan berean onomatopeia dago erro-errotik txertaturik, esaterako “zizt” esaten dugu, edo “zazt” gauza zorrotz baten joaldia adierazteko, eta ondoren ziztada, sastakaia, ziztuan ibiltzea...*

*Animalien eta musika instrumentuen hotsak adierazteko ere erabiltzen dira onomatopeiak.*

*Japoniera da, seguruenik, hizkuntzarik oparoena onomatopeia kontuan, eguneroko hizkuntzan erabiltzen dituztelako eta hotsak adierazteko bezala ekintzak adierazteko ere baliatzen dituztelako. Esate baterako, hamazazpiren bat onomatopeia erabiltzen dituzte ibiltzeko ekintza adierazteko, haurraren urrats txikiak, ibilera arina edota oinak arrastaka daramatzagula bereizten dituztenak.*

Jostaketa erraz bat egin nahi badugu, umei eskatzen ahal diegu bakoitzak hots bat pentsatzeko eta haren onomatopeia asmatzeko. Nork berea egingen du eta gainerakoek asmatu beharko dute zer den hori.

Proposamen konplexuagoa zera litzateke, guztion artean ipuin tradizionala egitea eta, irakasleak kontatu ahala, umeek narrazioan gertatzen diren hotsak egin egingen dituzte.

Eta horra onomatopeien gaineko azken proposamena: “El concierto” kanona, W. Geislerrek egokitua, bertan egiten baita zenbait musika instrumenturen onomatopeien gaineko ibilbidea..

Hona hemen partitura:

2. Cánones de contenido pedagógico. **El concierto** a 5 v. **GEISLER, W.**

142

Los vio - li - nes en - to - nan sus be - llas me - lo -  
 dí - as, ñi - gu ñi ñi - gu ñi - gu ñi ñi ñi - gu ñi - gu ñi - gu ñi. El  
 cla - ri - ne - te dul - ce - men - te to - ca du - ru du - ru du - ru du; el  
 cla - ri - ne - te, dul - ce - men - te, to - ca du - ru du - ru du. La trom -  
 pe - ta re - sue - na pa pa pa pa ra ra pa pa pa pa pa ra ra pa la trom -  
 pe - ta re - sue - na pa pa pa pa ra ra pa pa pa pa; la  
 trom - pa res - pon - de bua bua bua bua, la trom - pa res -  
 pon - de bua bua bua bua; tan so - lo dos no - tas to -  
 can los tim - ba - les, sol do do sol sol sol sol sol do.



- *Burmuinak “antzineko erara”*

*“La Guerra” piezaren testuan honako atsotitz hau aurkitzen dugu:*

*“Quien bien tiene y mal escoge,  
por mal que le venga no se enoje”.*

*Atsotitzak, errefrauk edo erranairuak herriak sortutako esamoldeak dira, irudiak eta ohiturak erabiliz herriaren jakintza handia erakusten duten ikasbideak ekartzen dituztenak.*

*Egia da “de refranes y cantares tiene el pueblo mil millares” atsotitzak dioena eta, beraz, haietako zenbaitekin jostaketan aritzea proposatzen dizuet.*

Osagaiak:

Hogei atsotitzeko zerrenda bat.  
Kartulinazko berrogei txartel

Egiteko modua:

Atsotitz guztiek dute bi esaldi edo bi zati.

Txartel batean idatziko dugu atsotitzaren lehen zatia eta eten-puntuak (suspentsiboak), eta beste txartel batean eten-puntuak eta atsotitzaren bigarren zatia. Gauza bera egingen dugu aukeratutako hogei atsotitzez.

Fitxak nahasi egingen ditugu, guztiak idatzitako aldeaz behera jarriko ditugu eta, txandaka, jokalaria bakoitzak bina altxatuko ditu. Bi txartelen artean atsotitza osatzen ez badute, berriz ere beheraka jarriko ditu, eta hurrengo jokalariaren txanda izanen da. Altxatutako bi txartelek atsotitza osatzen badute, beretzat hartuko ditu eta txanda pasako du. Atsotitz gehien biltzen dituen jokalariak irabaziko du.

Zailtasun bat eransten ahal diogu: atsotitza osatzen duten bi txartelak altxatzen dituen jokalariak haien esanahia azaldu beharko du, txartelak beretzat hartu ahal izateko.

Hona hemen atsotitz bilduma polita, gaztelaniazkoak eta euskarazkoak, nahiz eta, seguruenik, zuek ere askoz ere gehiago ezagutzen dituzuen:

GAZTELANIAZ:

Quien mucho abarca, poco aprieta.

A quien madruga, Dios le ayuda.

A buen entendedor, pocas palabras bastan.

Genio y figura hasta la sepultura.

Quien siembra vientos, recoge tempestades.

A caballo regalado, no le mires el diente.

Haz el bien sin mirar a quién.

No por mucho madrugar, amanece más temprano.  
No dejes para mañana lo que puedas hacer hoy.  
Cada maestrillo tiene su librillo.  
A enemigo que huye, puente de plata.  
A la cama no te irás sin saber una cosa más.  
La abeja, unas flores las coge y otras las deja.  
Antes se coge al mentiroso que al cojo.  
Cabra que tira al monte, no hay cabrero que la guarde.  
Si el pájaro la pica, es que la fruta está rica.  
El agua es blanda y la piedra dura, pero gota a gota hace cavadura.  
Ranas que cantan, el agua cerca; si no del cielo, de la tierra.  
Tanto tiempo en el campo y no conoces el matojo.  
Un grano no hace granero, ero ayuda al compañero.  
Unos saben lo que hacen y otros hacen lo que saben.  
No está hecha la miel para lo boca del asno.  
Gallo que no canta, algo tiene en la garganta.  
Con buen queso y mejor vino, más corto se hace el camino.  
Vísteme despacio, que tengo prisa.

#### EUSKARAZ:

Goiz gorri arrats euri  
Zerri goseak ezkurra amets  
Bi etxetako zakurra goseak jan  
Kanpoan uso etxean otso  
Sos baten pupua eta bi sosen trapua  
Zer ikusi hura ikasi  
Otsoa non aipa han gerta  
Kandelaria hotz negua joan da motz  
Kandelaria bero, negua dator gero  
Eguzkia nora zapiak hara  
Zahar hitz zuhur hitz

Asko daki zaharrak, erakutsita beharrak  
Gezurra esan nuen Getarian, ni baino lehen zen etxeko atarian  
Adiskide onarekin orenak labur  
Zenbat buru, hainbat aburu  
Auzokoaren behiak errapea handi  
Sua eta ura belaunetik behera  
Mina non, mihia han  
Errementariaren etxean, zotza burruntzi  
Oriko xoriak Orira tira  
Lan lasterra, lan alferra  
Gogozko tokian aldaparik ez

Erritmo-jostaketak ere egiten ahal ditugu atsotitez. Akonpainamendu erritmo errazak inprobisatuz, guztien artean asmatzen ahal duzuen doinu baten testua bihur daitezke. Poesia baten sorreraren hasieratako ona izan daiteke, eta atsotitz batzuk lotuta “rap” bat ere osa dezakegu.

- *Ipuin-mazedonia*



*Flecharen entsaladen ezaugarrietako bat zera da, konposizio berean nahasten eta uztartzen dituela neurriak, hizkuntzak, gai sakroak eta profanoak, etab.  
Hau egiaztatzen ahal dugu kontzertuan emanen diren entsaladen testuei begiratu bat eginda (1 Eranskinean).*

Roald Dahl ipuin idazle britainiarrek, “Cuentos en Verso para niños perversos” liburuan, “Hiru txerrikumeak” ipuinaren bertsio bitxia ematen du, ipuin hori “Txanogorritxo” ipuinarekin nahasten duela.

*Ipuin zoragarri hau Altea-Alfaguara argitaletxean aurkituko duzue.*

*Zuetako anitzek ikusi duzue, noski,” Shrek”en pelikularen bat. Zingira txar batean bizi den ogro kirastu horrek oso maite du bere intimitatea, baina egun batean haren etxea beteko dute maitagarrien ipuinetako hainbat pertsonaiak, kanpora egotzi baititu erregea izan nahi duen tirano zital batek. Hiru pelikuletan diren abenturetan, hurrenez hurren heldu dira Loti Ederra, Edurnezuri, Pinotxo, Katu Botaduna,...*

*Harrigarria, bederen, bada pertsonaia horiek guztiak pelikula berean ikustea. Mariano Silva eta Acebes idazleak honako narrazio polit hau idatzi zuen “El componedor de cuentos” izenburupean:*

*“Ipuin on bat hondatzen zutenek, edo txar bat idazten zutenek, ipuin konpontzailearengana jotzen zuten. Gizon zahartxoaren hura, burusoila, begi biziak zituen eta modaz pasatako anteojoak sudur puntan zeramatzana, eta mostradore txiki baten atzean egoten zen, inguruan hautsez estalitako hamaika ipuin liburu zituela, garai eta leku guztietakoak.*

*Haren dendak ate bakarra zeukan karrika aldera, eta bera beti lanean aritzen zen. Liburu handi haietatik etengabe ateratzen zituen hitz oso ederrak, bai eta esaldi osoak ere, edota abentura muturrak edo gertaera mirezgarriak; ondoren paper zuri batean idatzi eta, kontu eta pazientzia handiz, hautsitako ipuinean josten zituen materiale haiek. Konponketa amaituta, liburuak beste bat ematen zuen, hain ongi irakurtzen baitzen”.*

Hiru erreferentzia hauek dituzuela, proiektu eder bati ematen ahal diozue hasiera: guztion artean ipuin, historia, abentura bat idatzi, bertan sarturik osagai, pertsonaia, leku eta garai desberdinak. Beharbada hurrengo “best seller” izanen da, edota urteko pelikula “takileroena”ren gidoia...

## **Lagungarritako: irudiak**

Kontzertuan Mateo Flecharen musikaz gozatu ahal izanen dugu, oraingo honetan irudiz hornitua, Giuseppe Arcimboldo italiar margolariaren erretratuak proiektaturik emanen baititugu.. Haiek ikusi, gozatu, aztertu, zatikatu, eta ia dastatu, usaindu eta ukitu ere egin ahal izanen ditugu.

Ariketa hauen bidez milandar artista handia gogora ekartzen saiatuko gara.

- *Mozkinekiko hornidura*

*Loreak, arrainak, barazkiak, liburuak, sustraiak eta halakoak erabiltzen ditu Arcimboldok erretratu harrigarriak egiteko.*

*Alferrik saiatuko gara haren parean jartzen gure burua, baina antzeko baliabideak erabilia jostatzen ahaleginduko gara.*

Osagaiak:

Supermerkatu eta janari dendetako publizitate orriak  
Aldizkariak  
Artaziak  
Kartulina  
Arkatza eta borragoma  
Barrako eranskailua

Egiteko modua:

